

MARKINA-XEMEIN / 'Liburutegiak topaleku' proiektuan parte hartuko du

Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak antolatutako proiektuak kultur arteko integrazioa sustatzea du helburu.

Eider Mugartegi

Euskal Liburutegi sarearen bitartez, kultur arteko integrazioa sustatzeko kanpaina jarri du martxan Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak. Liburutegiak Topaleku ekimenak hainbat atal lotuko ditu. Eurretako bat, EAEko hamazortzi liburutegik aurrera eroango duten proiektu pilotua da. Markina-Xemeingo Biblioteka ere proiektura batu da.

Barikuan Liburutegi en Nazioarteko Eguna ospatzen da, eta aurten, kultura aniztasuna izango du ardatz. Egun hori aukeratu du Jaurlaritzako Kultura Sailak proiektu pilotuagaz hasteko. Horrela, barikutik urte amaierara arte hainbat jarduera egingo dituzte ume eta gazteentzat. Helduentzat, tailerrak eta ipuin kontalarien saioak antolatuko dituzte. 12 eta 16 urte bitarteko gazteentzat ipuin lehiaketa bat antolatuko da web orrian, idazle batek dinamizatuta.

Lehenengo ekimena, zapatu goizean egingo da. 11:00etan hasita, errumaniera, arabiera eta wolof berba egiten duten monitoreek lagunduta, literatura eta liburu-ekin lotutako eskulanak eta jolasak egin ahalko dituzte parte-hartzaileek. Esate baterako, Markina-Xemeinen berba egiten diren hizkuntza guztietan idatziko dute.

Irakurgaien gida

Bestalde, liburutegiak kultura integrazioarako gune gisa indartzeko asmoz, irakurketa gida bat proposatu dute: Haiena, gurea: tolerantziarako irakurgaiak. Gidarako 50 lan hautatu dituzte: guztiak berdintasun, tolerantzia eta aniztasunari buruzko narrazio eta ipuinak. 0-4 urte bitartetik hasi eta helduak arteko aukera dago euskaraz zein gaztelaniaz. Liburu horiek guztiak Markina-Xemeingo herri bibliotekan egongo dira, nahi dutenen eskura.

Horretaz gainera, bederatzi hizkuntzatan –euskara, gaztelania, frantsesa, ingelesa, portugesa, errumaniera, errusiera, arabiera eta txinera– idatzitako Hurbil zaitez izeneko zerbitzu gidak ere atera dituzte. Liburu horietan bibliotekak ematen dituen zerbitzuak azaltzen dira, zerbitzu horiek etorkinengana ailegatzeko asmoz.

Beste alde batetik, hainbat material –kartelak, orri markagailuak, eranskailuak, zerbitzu gida eta irakurketa gida– banatuko dituzte Irakurketa Publikoko Sarean batutako liburutegi guztietan.

Oparia

Proiektu pilotua hasteagaz batera, barikuan, Nazioarteko Liburuaren Eguna dela eta, urtero legez, oparia jasoko dute bibliotekara joan eta maileguan liburu bat hartzen duten guztiek.

Asteburuko ekimenak

Barikua. Oparia banatuko zaio bibliotekara joan eta maileguan liburu hartzen duen guztiari.

Zapatua. 11:00etan hasita, eskulanak eta jolasak egingo dira errumaniera, arabiera eta wolofa berba egiten duten begiraleak lagunduta.